



Somarriba izan zen txox denboraldiari hasiera eman ziona.

Juan HERRERO

Joane Somarribak egin zuen urteko lehen txotxa

Astigarraga herriak urtarilaren 17an eman zion ongietorria 2001eko txotx denboraldiari, Sagardo Berriaren Eguna ospatuz. 2001ekoa zortzigarrena izan da eta Joane Somarriba txirrindulari sopelarra izan zen gonbidatu berezia. Berak egin zuen aurtengo lehen txotxa.

Petritegi sagardotegian egin zen Sagardo Berriaren ongietorrirako ospakizunak lehenengo aldiz izan zuen emakume bat gonbidatu gisa. Ekitaldian, urteko sagardoaren gorabehera guztiak azaldu zituen Migeltxo Zapiain sagardogileak. Guztira, 5 milio litro inguru sagardo ekoiztu da Astigarragan. Hauetatik %5 txotxetik edateko eta gainontzekoa botilatan banatzeko. Sagardogilearen ustez gainera, 2001eko sagardoa benetan ona izan da.

Ekitaldi horretaz gain, Astigarragak bere ongietorria eman zion sagardo berriari, bigarren aldiz Txotx-berri festa antolatuz. Udale-riko hainbat kirol zein kultur elkar- te eta sagardogileak batu eta udalaren laguntzaz antolatzen dute asteburu osoko festa hau.

Honekin, sagardotegietako giroa «baserrietatik herriko plazara» ekarri nahi dute antolatzaileek eta pixkanaka Joseba Barandiaran plazan antolatzen den sagardotegi erraldoia tradiziozko zita bihurtu. 2001eko edizioaren arrakastak ha- la aurreikusi du.

Prestatu zen karpan eta ingu- ruan, sagardo ugariaz gain, abere eta barazki azokak, artisauen era- kusketa, bakailao tortilla lehiaketa, dantzaldiak, bazkari eta afari he- rrikoiak, abesbatzak eta haur jola- sak izan ziren.